

FUNTZIONAMENDU ARAUAK
Ospitalizazioko Unitatea – BARNE MEDIKUNTZA**Dei egin behar baduzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA****ARAU OROKORRAK GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN**

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta osasun-sistemak **eskaintzen dituen zerbitzuak** egoki erabiltzeaz arduratu.
- Ospitalizazio-unitatetik borondatez irteketan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan, eta horretarako gelako txirrina erabili.
- Eguneroko ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratutako unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lur gabeak.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalen inguruko ardurarik.

MEDIKUAREN BISITA

- Pazienteek laguntza gomendatzen da.
- Pazienteen atsedena errazteko, logelan ez da pertsona bat baino gehiago egongo gaixo bakoitzeko.
- Batzuetan, gaixoen orientazioa gal dezakete eta laguntza behar izaten dute, istripuak saihesteko. Zaintzailea pazientearekin 24 orduetan egon daiteke.
- Ospitalean dagoen orok ozenki hitz egitea eta korridoreetan geratzea saihestu behar du. Halaber, eskatzen da logelan ordena izatea, eta horretarako ez utzi berokiak edo beharrezkoak ez diren beste objektu batzuk mahaietan.

SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eguneroko, igandeetan izan ezik, 10:00etatik aurrera.
- Inoiz ez da informazio klinikorik telefonoz emango.
- Pazienteak beste pertsona batzuei informaziorik ez ematea nahi badu, medikuari jakinarazi behar dio.
- Pazienteak ez du ospitaleratuta dagoen unitatetik atera behar, erreferentziazko osasun-langileen baimenik gabe.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingesaturik dagoen inori buruzko informaziorik eman, zuri dagokizu non dagoen jakitea.

OTORDUAK

- 09:00etan Gosaria
 - 13:00etan Bazkaria
 - 17:00etan Askaria
 - 20:00etan Afaria
- Osasun-langileek ezarriko dute pazientearen dieta

BISITAK

- 15:00etatik 22:00etara, lanegunetan
 - 08:00etatik 22:00etara, larunbat eta igandeetan
 - **Gehienez PERTSONA 1 paziente bakoitzeko.**
- Nahi izanez gero, senitarteko bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK**LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA**

- **GARBITASUNA:** gomendatzen da sendatzea hobetzeko higiegi pertsonal ona izatea.
- Osasun-langileek pazienteari lagunduko diote garbitzen, eta autonomia sustatuko dute.
- Gogoratzen da gelako komuna pazienteentzat **soilik** dela.
- Bisitariak Unitateko komunak erabili ahal izango dituzte (komun horiek sarreran dauden edari-janari makien aldean daude).
- Behar izanez gero, txirrina duzu osasun langileei deitzeko. Eskatzen da berau arduraz erabiltzea. **GOGORATU** pazienteentzako zainketek ezarritako ordutegia dutela.



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitaleratzearen egiaztagiria (enpresarako, familiako medikuarentzat edo senitartekoentzat), Harrerako Zerbitzuan jasotzen da, beheko solairuan, sarreran.

**SANTIAGO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007600**

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono-zenbaki honetara deituta: 945000887.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz, berriro erabili daiteke. Matxuraren bat gertatu edo zerbait behar izanez gero, deitu 1422 luzapenera edo 636 46 59 37 telefono-zenbakira. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-eta.

**KAFETEGIA** Ordutegia: 07:30etik 22:00etara.

Ate Nagusiaren aurrean dago. Itxarongelekan kafe- eta freskagarri-makinak daude.

**OSPITALEKO ALTA:** Zure mediku arduraduna da alta noiz eman behar den erabakitzen duena.

Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senitartekoren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

Anbulantzia eskatuko zaie ohean dauden eta behar duten pazienteek.

Eskatu osasun-langileei emateko ospitaleratzean zehar emandako medikazioa, txostenak, Sintrom orriak, etab.



ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA: AUOKo SANTIAGO kapera, **MEZA ORDUTEGIA:** ASTELEHENETIK LARUNBATERA 20:00etan; IGANDE ETA JAIEGUNETAN 11:00etan. Errosarioa Eukaristia baino 30 minutu lehenago ospatzen da. Harremanetarako telefono-zenbakia: **618 75 14 15**

PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) Beheko Solairuan dago. **Ordutegia:** 09:00etatik 14:30era (astelehenetik ostiralera). **Gizarte-langilea:** 3. C solairuan dago.